

380/1994 DEKRETUA, urriaren 4koa, jokoaretoen eta jolasaretoen araudia onartzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko jokoiharduera Jokoa arautzeari buruzko azaroaren 8ko 4/1991 Legea onartzean arautu zen orokorrean, araueremu orokorra finkatuz eta jokoaren azpialor bakoitzeko arauen araudi bidezko garapena aurrikusiz. Araudi hau aipatu Legean agertzen diren aginduak betez ematen da, iharduera honetan jokatzeko duten osagaiak osorik arautuz: izan ere, bertan finkatzen dira baimenen titularrek bete beharreko baldintzak, baita aretoek bete beharrekoak ere, administrazioak egokitzat jo ditzan. Eginkizun honetan gidari izan den helburuetariko bat baimenen titularrak profesionalagotzeko neurriak eta aretoetan segurtasuna bermatzeko neurriak hartzeko helburua izan da, joko- eta jolasaretoak duintzeko ahalegin handia eginez. Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Euskal Joko Batzordeak eginiko txostena ikusita eta Jaurlaritza Kontseiluak 1994ko urriaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Atal bakarra.- Jokoaretoen eta jolasaretoen araudia onartzen da, ondoren jasota datorrena, baita dekretu honen eremupeko establezimenduek bete beharreko baldintza teknikoari buruzko eraskina ere.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen da dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Herrizaingo sailburuak du dekretu honen garapenean eman beharreko xedapenak emateko aginpidea, eta bereziki jokoaretoetan makinak jartzeko baldintzei eta ezaugarriei buruzkoak.

Bigarrena.- Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen,

1994ko urriak 4.

Lehendakaria, JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua, JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

ERASKINA JOKOARETOEN ETA JOLASARETOEN ARAUDIA

I. ATALBURUA XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.- Xedea eta ezarpen eremua.

Araudi honen xedea Euskal Autonomi Elkarteko jokoaretoak eta jolasaretoak jarri eta irekitzeko arauak eman eta areto horien titularrek Joko Errolda Nagusian izena emateko baldintzak ezartzea da, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak ezarritakoaren arabera.

2. atala.- Aretoen sailkapena.

1.- Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 14. eta 15. atalekin bat etorritik, eta lege araubidearen arabera, aretoak bitan banatzen dira: jokoaretoak eta jolasaretoak.

2.- Jokoaretoak dira, araudi honetan jasotako baldintza teknikoak betetzeaz gain, «C» motako makinak izan ezik, saridun jolasmakinak eta ez besterik ustiatzen dituztenak. **Euskal Autonomia Erkidegoko Joko Areto guztietan instalatu beharreko "B" motako makina kopuruak ezin du izan 1.500etik gorakoa".**

Joko Aretoetan ezin instalatu izango da "B" motako 12 makina baino gutxiago ez eta 50 baino gehiago.

3.- Jolasaretoak dira, araudi honetan jasotako baldintza teknikoak betetzeaz gain, jolasmakinak edo «A» motako makinak eta ez besterik ustiatzen dituztenak. 4.- Kirolmakinak, bilarrak edota jokomakina ez diren beste antzeko batzuk ere jar daitezke, aretoak duen harmenaren arabera.

3. atala.- Baimendutako beste toki batzuk.

1.- Aisirako tokietan «A» motako 5 makina jar daitezke gehien jota aldi baterako, esate baterako akanpalekuetan, jolasparkeetan, barrakatokietan edo antzekoetan.

2.- Horretarako prestatuak dauden tokietan jarri beharko dira makinok eta horiek ustiatzeko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren berarizko baimena beharko da.

II. ATALBURUA BAIMENAK ESKURATZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

4. atala.- joko- eta jolasaretoen enpresa titularrek bete beharreko baldintzak.

1.- Joko Errolda Nagusiko Areto Enpresen Erroldan pertsona fisikoek eta zuzenbidez onartutako elkarte izaerako zuzenbidezko pertsonak eman dezakete izena, ondorengo ataletan ezarritako baldintzak betez eta prozedurari jarraituz.

2.- Euskal Autonomi Elkarteko jokoaretoen eta jolasaretoen ustiaketa eta kudeaketarako ezinbestekoa izango da erroldaratze hori. Horrez gain, aretoak ustiatu ahal izateko, areto bakoitza jarri eta irekitzeko berarizko baimena beharko da, araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

5. atala.- Elkarte izaera duten Aretoenpresak.

1.- Aretoen titular diren elkarte izaerako enpresek kasuan kasuko legerian ezartzen den gutxieneko kapital soziala beharko dute izan. Kapitala akzio eta partizipazio izendunek osatuko dute, eta horiek eskualdatu ahal izateko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren alde aurreko baimena beharko da, oso-osorik banatuta eta ordainduta egoteaz gain.

2.- Araudi honetan aipatzen diren jokoenpresetan atzerriko zenbateko kapitalak parte har dezakeen finkatzeko berarizko arauetan ezartzen dena hartuko da kontutan.

6. atala.- Baimenak eskuratzeko inhabilitazioak. Ezingo dira izan enpresa aretoustiatzaileen titular Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 19. ataleko 4 eta 5 zenbakietan aipatzen den kasuren batean dauden pertsona fisikoak, ezta horien partaidetzaz eratutako enpresak ere.

7. atala.- Jokoaretoen eta jolasaretoen enpresa titularrek izen-emateko araubidea.

1.- Areto Enpresen Erroldan izen-emateko asmoa duten pertsona fisiko edo zuzenbidezkoek eskabidea aurkeztu beharko dute, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. atalean aurrikusitakoaren arabera, honako agirisortarekin batera:

- a) Eskegilearen nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia eta, elkartearen kasuan, administratzaile, kontseilari eta bazkideena.
- b) Elkartearen eraketa agiriaren edo estatutuen kopia erkatua edo ziurtagiria.
- c) Aginpidedun organoak luzatutako elkartearen ziurtagiria, bazkideen zerrenda, partizipazio kuotak eta kapital soziala zehaztuz.
- d) Elkartearen Merkatal Erroldan izen-ematearen ziurtagiria, gehienez eskaera egin baino hiru hilabete lehenago.
- e) Administrazio aginpidedunak luzatutako ziurtagiria, zenbaki honetako a) idatzian aipatzen diren pertsonen aurrekari penalei buruzkoa.
- f) a) idatzian aipatzen diren pertsonen aitortzea, araudi honen 6. atalean jasotako inhabilitazio kasuetan ez daudela adieraziz.
- g) Eskegileak ihardunerako dituen giza-baliabide eta baliabide tekniko eta materialei buruzko txostena.

2.- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, behar diren egiaztapenak egin ondoren eta aurkeztutako datu eta agiriak aztertu ondoren, izen-ematearen bideragarritasuna jakinaraziko du txosten baten bidez. Txostena ezezkoa bada, administrazio errekurtsioa jarri ahal izango da.

3.- Eskaerari baiezkota ematearen alde agertzen bada, doakionari jakinaraziko zaio eta horrek, bi hilabeteko gehienezko epean, fidantza ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, araudi honetako 13. atalean ezarritakoarekin bat etorritik.

4.- Aurreko idatzian aipatutako epean agirisorta hori aurkeztzen ez bada, doakionari jakinaraziko zaio hiru hilabeteko epean espedientea iraungita

geldituko dela, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen 30/1992 Legearen 92. atalean ezarritakoaren arabera.

5.- 3. idazatian aipatutako agiriak aurkeztu eta gero, Areto Enpresen Erroldan izena emango da.

8. atala.- Jokoaretoak eta jolasaretoak jarri eta irekitzeko baimena eskuratzeko araubidea.

1.- Jokoaretoak eta jolasaretoak kudeatu eta ustiatzeko beharrezkoa izango da aurreko ataleko izenematea.

2.- Jolasaretoa edo jokoaretoa jartzeko asmoa duten pertsona fisiko edo zuzenbidezkoek idatzia zuzendu beharko diote Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. atalean aurrikusitakoaren arabera, honako agirisortarekin batera:

- a) Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimena ematen dion ebazpenaren kopia edo baimendutako izen-ematearen zenbakiaren aipamena. Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimena eta jokoaretoa edo jolasaretoa jarri eta irekitzeko baimena batera eskatzen badira, araudi honetako 7. atalean ezarritakoaren arabera egin dela egiaztatu beharko da.
- b) Teknikari gaituak egindako aretoko lan eta instalazioei buruzko oinarrizko proiektua, dagokion Lanbide Elkargoaren ikusonetsiaz. Honako edukia izango du gutxienez: - Aretoa jarri nahi den lokalaren planoak, 1/1000 eskalan, jokoaretoak, komunak eta sarrerak, biltegiak edo bulegoak hartuko duten tokia azalduz. - Suteen aurkako baliabideak eta ebakuaziorakoak non kokatuta dauden azaltzeko planoak. - Araudi honen eraskinean aipatzen diren Baldintza Teknikoak betetzen direla adierazten duen Txostena.
- c) Lokalaren kokapen-planoa, gutxienez 250 metroko inguruak mugatzen duen azalari loturik, eta eremu horretan joko-aretorik ez dagoela adieraziko da, artikulua honetan ezarritako distantziak kontuan hartuz. Hori guztia teknikari eskudunak ziurtatu behar du"

3.- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, aurkeztu zaizkion agiriak aztertu eta behar diren datuak eskatu eta egiaztapenak egin ondoren, baimena ematearen bideragarritasuna jakinaraziko du.

4.-

5.- Joko-aretoak bakarrik baimendu ahalko dira baldin eta instalatu nahi denarekiko 250 metroko edo hortik beherakoa den distantzian -erradioan neurtuta- edo 400 metrokoa edo hortik beherakoa den distantzian -linealki neurtuta- baimenduta dauden edo izapidetzen ari diren beste batzuk ez badaude. Izapidetzen ari den espedientea administrazio-bidean artxibatuz gero edo ukapen irmoz egonez gero, eskaeraren hurrenkeraren arabera dagokion interesdunak eskubidea erabili ahalko du.

Distantzia erradiala dugu irudikatutako zirkunferentzia baten erradioaren neurria, erdigunetzat instalatu nahi den lokalaren sarrera-atea hartuta. Distantzia lineala dugu, aldiz, instalatu nahi den lokalaren sarrera-atek neurtutako distantzia; betiere sartzeko modukoak diren, baimenduta dauden eta oinez egin daitezkeen ibilbideetatik neurtuta

9. atala.- Baimena ematea.

1.- Aurreko idazatian aipatutako epean agirisorta hori aurkezten ez bada, doakionari jakinaraziko zaio hiru hilabeteko epean espedientea iraungita geldituko dela, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen 30/1992 Legearen 92. atalean ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko ataleko 4 idazatian azaltzen diren agiriak aurkeztu ondoren, aretoa jarri eta irekitzeko baimena emango da. Bertan, baimendutako gehienezko aforoa eta jarriko den joko-makinen gehienezko kopurua jasoko dira.

3.- Baimena eman dela ulertuko da, indarrean dauden arauen arabera eska daitezkeen udallizentzien kaltetan gabe.

10. atala.- Bideragarritasuna aztertzeko aurrekontsulta.

1.- Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan gabe, aretoa ustiatu nahi duen orok egin diezairoke Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari aretoa jarri eta ireki ahal izateko baimena eskuratzeko aukerarik duen jakiteko kontsulta.

2.- Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: a) eskegilearen nortasun agiri nazionalaren edo baliokidearen kopia. b) araudi honen 8. ataleko 2. zenbakiko b) idazatian aipatutakoa.

3.- Aurkeztu zaizkion agiriak ikusi ondoren, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimena eskuratzeko aukera baduela edo ez duela erantzungo dio hiru hilabeteko gehienezko epean. Ukatuz gero, doakionari adierazi egin beharko zaio zeintzu diren baimena lortu ahal izateko aretoan egin beharreko aldaketak.

4.- Kontsultari baiezkoko erantzuna ematen bazaio eta doakionak baimen espedienteari ekin, ez du atal honetako 2 zenbakian aipatzen den agiririk aurkeztu beharko. Baiezkoko erantzuna neurri zuzentzaileak hartzeko baldintzapean ematen bada, doakionak, espedienteak dirauen artean, neurri horiek hartu izana egiaztatu beharko du. Idazati honetan xedatutakoak indarra izan dezan, doakionak bideragarritasuna aztertzeko aurrekontsultaren erantzuna jasotzen duenetik gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko du aretoa jartzeko baimeneskabidea.

5.- Bideragarritasuna aztertzeko eginiko aurrekontsultari emandako erantzuna baiezkoa izatea ezingo da inola ere aretoa ustiatzeko administrazioaren baimentzat hartu. Beti izango da derrigorrezkoa araudi honen 8. atalean ezarritako prozeduraren bidez eskuratzeko baimena.

11. atala.- Areto Enpresen Erroldako izenemateen eta aretoak jarri eta irekitzeko baimenen iraupena, balio galtzea, iraungipena eta eskualdatzea.

1.- Areto Enpresen Erroldako izenemateek eta aretoak jarri eta irekitzeko baimenek hiru urteko iraupena izango dute. Hala ere berriztatu daitezke, egiten diren unean indarrean dagoen arauteriaren arabera.

2.- Izenemateak deuseztatuta geldituko dira eta baimenek indarra gal dezakete baldin eta:

- a) Doakionak uko egiten badie, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari bidalitako idatziz.
- b) Enpresa borondatez edo legez desegiten bada. Enpresaren titularrak edo bazkide edo partaideetakoren bat hiltzen bada, zuzenbide pribatuko oinordetza arloko arauak finkatzen dituzten izapideak burutu ondoren, oinordeak beharrezko administrazio baimenak eskatu beharko dizkio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari.

- c) Baimenaren iraupen epea igarotzean, administrazioak aurrez eskatu arren, berriztatze eskaerarik egiten ez bada.
- d) Indarrean dauden arauen arabera irekitako administrazio prozeduran baimena kentzeko erabakia hartzen bada. Hori honako arrazoiren baten oinarritu beharko da: - idantzaren zenbatekoa murriztu denean, 13. atalean finkatutako epean berriz fidantzarik jarri ez delako. - Baimenak indarrean dirauen artean, baimena eman zen garaiko baldintzaren bat, titularrari edo aretoari buruzko baldintzaren bat alegia, galdu delako. - Baimenen titularrek edo horien bazkide edo administratzaileek araudi honetako 5 eta 7 ataletako aginduak betetzeari uzten dietelako.
- e) Horiez gain, aretoetarako baimenak baliorik gabe geldituko dira, edozein arrazoi dela eta, baimenaren titularraren alde Areto Enpresen Erroldan egindako izenemateek indarra galtzen badute.

3.- Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimenak eskualdaezinak dira bizien artean, atal honetako 2.b) idatzian ezarritakoaren kaltetan gabe.

4.- Aretoak jarri eta irekitzeko baimenak eskualdatu ahal izateko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren administrazio baimenabehar da aurrez. Eskualdaketa Areto Enpresen Erroldan izenemandako pertsona fisiko eta zuzenbidezkoen artean bakarrik egin ahal izango da.

5.- Lokaletan gelen luzezabaleran eragina duen aldaketaren bat egiteko, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimena beharko da aldeztu aurretik.

12. atala.- Izenemateak eta baimenak berriztatzea.

1.- Araudi honetan aipatzen diren baimenak berriztatze eskaera baimenak indarra galtzen duenetik kontatzen hasi eta gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko zaio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari.

2.- Areto Enpresen Erroldan egindako izenemateak berriztatze, doakionak araudi honen 7 ataleko 1 zenbakiko a), e) eta f) idatzietan baimenaren titular diren pertsona fisikoen inguruko edo, zuzenbidezko pertsonen kasuan, administratzaile, kontseilari eta bazkideen inguruko agiri-sorta aurkeztu beharko du.

3.- Aurkeztutako agiriak eta aurreko zenbakietan ezarritako baldintzak betetzen diren aztertu ondoren eta egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak erabakiko du bidezkoa den ala ez berriztatze hori. Erabaki hori hartzeko epean ezer esaten ez badu, baiezkoa dela ulertuko da.

III. ATALBURUA FIDANTZAK

13. atala.- Fidantzak.

1.- Araudi honetan aipatzen diren izenemateak eta baimenak lortu ahal izateko ondoren jasota datozen fidantzak ezarri beharko dira, bertan adierazitako kontzeptuegatik:

- a) jolasaretoen titular diren enpresen izenemateagatik, 1.000.000 PTA.
- b) Jokoaretoen titular diren enpresen izenemateagatik, 5.000.000 PTA.
- c) Jolasaretorako baimen bakoitzeko, 2.000.000 PTA.
- d) Jokoaretorako baimen bakoitzeko, 5.000.000 PTA.

2.- Jokoaretoaren eta jolasaretoaren izenematea eskatzen bada batera, bi fidantzen batuketa egingo da.

3.- Fidantza eskudirutan edo banketxe, aurrezki kutxa, edo abuztuaren 2ko 33/1984 Legearen menpe dauden aseguru etxe, kreditu kooperatiba edo elkarrenganako bermedun sozietateetan jarritako abal bidez gauzatu daiteke, eta hori Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren alde egingo da. Fidantza, ihardun horren ondorioz joko arloko arauetan ezarritako administrazio mailako zigorrak derrigorrez ordaindu behar direnean erabiliko da.

4.- Inoiz, edozein arrazoi dela eta, fidantza murrizten bada, enpresa baimendunak osatu egin beharko du ezarritako mugara arte fidantza, hilabeteko gehienezko epean. Berme hori berriz ez jartzeak izen-ematea deuseztatu edo baimena kentzea ekarriko du, araudi honen 11. ataleko d) idazatian xedatutakoarekin bat etorritz.

5.- Fidantza aldez aurretik Administrazioak emandako baimenarekin baino ezingo da berreskuratu. Halere, fidantza jartzeko arrazoiak desagertzean baino ez da emango berreskuratzeko baimena, eta zigorespedienterik edo administrazioetasarik ordaintzeko ez badago. Fidantza berreskuratzeko eskaera egiten den unean Zigor-espeditente bat irekita egonez gero, ez da berreskuratzeko baimenik emango espeditente hori erabakitzen ez den bitartean eta, hala badagokio, doakionak zigorraren zenbatekoa eskuratzen ez duen bitartean.

IV. ATALBURUA ARETOEN USTIAKETA ETA IHARDUNERAKO ARAUBIDEA

14. atala.- joko-makinak areto eta baimendutako tokietan ustiatzeko araubidea.

1.-

2.- ..

15. atala.- Aretoen ihardunerako araubidea.

1.- Jokoaretoetan ezingo da sartu adinez txikikorik eta ezta edanda edo beste drogaren baten eraginpean dagoenik ere. Adinez txikikoei eragiten dien debeku hori agerian jarri beharko da, aretorako sarreran. Aretoko jabeari aitortzen zaio sartzan uzteko edo ez uzteko eskubidea, horrela debekua betearaziz.

2.- Joko- eta jolasaretoetan areto horiek jartzeko eta iharduteko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimena jarriko da, jendeak ikusteko moduko tokian. Horrez gain, erreklamazio liburua edo orriak ere jarriko dira erabiltzaileen eskuragarri. Horien eredia Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak finkatu eta onetsiko du.

3.- Ikuskapen eta kontrola egiteko, aretoen jabeek bertan izan beharko dute, funtzionario aginpidedunaren eskuragarri, aretoari eta bertan jarritako makinei buruzko baimen eta agiri guztiak.

4.- **Joko- eta jolas-aretoetan, beharrezko lizentzia lortu ondoren, ostalaritza-zerbitzua jarri ahalko da soil-soilik lokalaren barruan eta erabiltzaileentzat, eta debekatuta geratzen da jolas-aretoetan edari alkoholodunak saltzea.**

Zerbitzu hori jartzen bada, barrak eta mahaiek ezin dute hartu lokalaren azalera erabilgarriaren ehuneko hogeita hamar baino gehiago

5.- Aretoen kanpoko aldean iragarki, errotulu edo antzekoren bat jarriko da, jokoaretoa edo jolasaretoa den adieraziz, eta ondoren izena. Aretoko gainontzeko zerbitzuei buruzko iragarkiak txikiagoak beharko dute izan.

V. ATALBURUA ZIGORARAUBIDEA

16. atala.- Administrazio mailako arauhaustek.

1.- Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 24. atalean eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, araudi honetan ezarritakoaren aurkako arauhaustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2.- Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 25. atalean ezarritakoa garatuz, Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Araudi honetan xedatutakoaren arabera baimenik ez duten lokaletan joko edo jolasak antolatu, egin edo ustiatzea, edo horietan aritzea.
- b) Areto Enpresen Erroldan izenemanda ez dauden pertsonen joko- edo jolasaretoak ustiatu edo kudeatzea.
- c) Araudi honetan aipatzen diren baimenak edozein eratan besteren bati lagatzea, araudian bertan xedatutako bidetik ez bada.
- d) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean Arau-hauste larritzat jotako beste edozein egite edo ezegite.

3.- Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 26. atalean ezarritakoa garatuz, Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Araudi honetan aipatutako areto edo tokietan «A» motako baimendutako baino makina gehiago jartzea edo makina horrek administrazio baimenik gabe jartzea.
- b) Aurre baimenik behar ez duen jatorrizko baimenean edozein aldaketa jakinarazi gabe egitea.
- c) Adin txikikoei sarrera debekatua duten establezimenduetara sartzen uztea.
- d) Aretoan dauden makinetan erantsi beharreko agirisortaez jartzea, administrazio baimenak izan arren.
- e) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean Arau-hauste larritzat jotako beste edozein egite edo ezegite.

4.- Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 27. atalean ezarritakoa garatuz, Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Aretoaren sarrerako ateetan adinez txikiei sarrera debekatzen zaiela dioten iragarki edo errotulurik ez jartzea.
- b) Iragarki, errotulu edo antzekoak araudi honen 15.5 atalean ezarritakoaren aurka jartzea.
- c) Lokalean berrikuntza lanak administrazio baimenik gabe egitea, araudi honen arabera baimen hori izatea derrigorrezkoa denean.
- d)
- e) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean Arau-hauste arintzat jotako beste edozein egite edo ezegite.

5.- Araudi honetan jasotako Arau-haustek Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen IV. atalburuan ezarritako araubideari jarraituz eta bertan finkatutako zenbatekoez zigortuko dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Araudi honek indarra hartu aurretik Areto Enpresen Erroldan egiten diren izenemateek eta aretoak jarri eta irekitzeko ematen diren baimenek balioa izaten jarraituko dute oinarritu zireneko arauetan ezarritako epean zehar.

Eperik ez zutenak berriztatu egin beharko dira araudi honek indarra hartzen duenetik hasi eta urtebeteko epean.

Bigarrena.- Aurreko Aldibaterako Xedapenean ezarritakoaren kaltetan gabe, araudi honek indarra hartzen duen unean ustiatzen ari diren aretoek edo indarrean dauden baimenak dituzten enpresek honako datu eta agiri hauek aurkeztu behar izango dizkiote Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, agiriak egunean izateko helburuarekin:

- a) Aretoaren edo aretoen jabearen edo horren ordezkariaren izena eta helbidea.
- b) Aurreko idazatik pertsonaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia eta, zuzenbidezko pertsonen kasuan, elkartearen estatutuen kopia erkatua eta bazkideen zerrendaren egiaztatzea, bakoitzak elkartean duen partaidetza ere adieraziz.

Hirugarrena.- Araudi honek indarra hartu baino gutxienez sei hilabete lehenagotik baimena berriztatzeko eskabidea eginda duten aretoei dagokienez, berriztatzeko espedienteetan ebazpenik eman ez bada, lehengo arauen arabera izapidetuko da, aldibaterako xedapenetatik laugarrenean xedatutakoa izan ezik; azken hori jabe guztietan ezarriko baitzaie, salbuespenik gabe.

Laugarrena.- Areto Enpresen Erroldan izenemandako pertsona fisikoek eta zuzenbidezkoek eta areto baimendunek araudi honetan enpresa eta fidantzen inguruan ezartzen dena bete beharko dute, indarra hartzen dutenetik urtebeteko epean.

Bosgarrena.- Aretotarako Behin-behineko baimenen jabeek eguneratu egin beharko dituzte baimenok araudi honek indarra hartzen duenetik hasi eta sei hilabeteko epean. Hori ezean baimena kentzeko espedientea irekiko zaie, araudi honen 11 e) atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

Seigarrena.- Aretoak jarri eta iharduteko indarrean dauden baimenak araudi honetan ezarritako baldintzak betez berriztatuko dira. Egokitzapena teknikoki ezinezkoa bada eta araudi honen eraskinean jasotako baldintza tekniko guztiak betetzerik ez badago, doakionak beste irtenbideren bat proposa dezake, teknikari adituak egindakoa eta dagokion elkargoak ikusonetsia, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko. Hori indarrean dauden arauak betez egingo da, batez ere egituren sendotasunari eta suteen aurkako babeserako eta prebentziorako neurriei dagozkienak hain zuzen. Horiez gain eta beti ere eraskin horren 5, 6, 7, 8 eta 10 idazatietan ezarritakoa bete beharko dute.

JOKO-ARETOEN BALDINTZA TEKNIKOAK.

1.- Egoera.

Joko-aretoen sarrerek eta irteerak Eraikuntzako Kode Teknikoak eta araudi osagarriak ezarritako segurtasun- eta distantzia-baldintzak betetzen dituzten kaleetan eta antzeko lekuetan egongo dira.

2.- Ebakuazio-bideak, ateak eta eskailerak.

Joko-aretoetarako lokalen ebakuazio-bide, ate, eskailera eta arrapalen inguruko kalkuluak egiteko Eraikuntzako Kode Teknikoan eta araudi osagarrian ezarritakoa kontuan hartuko da.

3.- Azalera.

Joko-aretoak ustiatzeko lokalen gutxieneko azalera erabilgarria ehun metro karratukoa izango da eta solairu bakarrean egongo da, zerbitzuak izan ezik, joko-aretoaren barruko beste solairu batean jarri ahalko baitira.

Azalera erabilgarria soil-soilik dugu jendeak normalean erabiltzen duena, horren barruan atari izateko aretoa -egonez gero-, komunak eta joko-aretoa barne hartuta. Azalera erabilgarritzat ez da joko barrak jartzeko hartutakoa, ezta beren barruko aldea ere, joko-aretoako langileek erabiltzen baitute.

4.- Komunak.

Areto guztiek komunak izan beharko dituzte, betiere kasuan kasuko araudiak ezartzen duenaren arabera.

5.- Edukiera.

Lokalaren gehieneko okupazioa zehaztuko da lokal mota horretarako segurtasuneko arau teknikoek ezartzen dutenaren arabera.

6.- Makina-kopurua eta banaketa.

Joko-aretoetan instalatu beharreko gehieneko makina-kopurua, kirol-makinak edo antzekoak barne, honela zehaztuko da: bat 3 metro karratuko.

Makina horiek lokaleko pasabideak eta ebakuazio-bideak ez eragozteko moduan jarri behar dira.

7.- Instalazio elektrikoa.

Aplikatzekoa izango da behe-tentsioari buruzko sektore-araudian eta bat datorren araudian xedatutakoa.

8.- Beste segurtasun-neurri batzuk.

Bolumenei, konpartimentuei, suteen aurkako babes-neurriei eta, oro har, lokalen segurtasun-neurriei dagokienez, aplikatzekoa izango da Eraikuntzako Kode Teknikoan eta sektore-araudi aplikagarrian xedatutakoa.

9.- Autobabes-plana.

Aplikatzekoa izango da indarrean dagoen autobabes-planei buruzko araudian xedatutakoa

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Joko dentsitate handiko aldetzat jotzen da B motako makinak dituzten bi joko areto edo gehiago dituena, baldin eta alde horretan joko aretoen arteko distantzia Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 8. artikuluan ezarririk dagoen distantziaren berdina edo txikiagoa bada.

Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 2.2. artikulua bigarren paragrafoan ezarririk dagoenaren kalterik gabe, joko dentsitate handiko aldean sartzen den areto bakoitzean ezin instalatu izango da "B" motako 25 makina baino gehiago.

Bigarrena.– Joko aretoek Dekretu hau indarrean sartzen denean baimendurik dauden "B" motako makina kopurua mantendu ahal izango dute. Aurrekoaren kalterik gabe, Dekretu honetan araupetu diren mugak gaindituz gero, ezin izango da "B" motako makinak ustiatzeko beste baimenik eman, ez eta aldi baterako edo behin betiko baja emanda dauden makinak alta hartu ere.